

## EH BILDUK ETA ONMIAK ONARTEZINTZAT JO DUTE LAUDIOKO HILTEGI ZERBITZUA DEKRETU BIDEZ IXTEA

Ander Añibarro alkatea buru duen gobernu-taldeari eskatu diote atzera bota dezala ixteko alde bakarreko erabakia, eta premiaz azter dezala udal-hiltegiaren zerbitzua berriro irekitzea ahalbidetuko duen irtenbide bat.

**2021/10/22 Audio.** Lamia Arcas eta Álvaro Barrios EH BILDUKo eta OMNIAko talde politikoetako bozeramaileek, hurrenez hurren, udal gobernuak hiltegi-zerbitzua alde bakarretik eta berehala ixteko emandako erabakia salatu dute. Adierazi dute ez dela berria EAJK aldebakartasunez erabakitzea udalerraren etorkizun estrategikoari buruz, ezta bertako biztanleei galdetu gabe erabakitzea ere, eta ez dela sinesgarritasun gutxiko argudioak erabilia hartzen duten erabaki bakarra.

Hilabete da EH BILDUK eta OMNIAK txosten bat eskatu zutela, baina oraindik ez da iritsi, ekimen horrekin orain arte egindako jardueren berrespen juridikoa eskatu du, baita zerbitzuaren kudeatzailearen agerraldia ere. Hiltegiaren bigarren itxieraz geroztik, oposizioak gobernu-taldeari behin eta berriz eskatu dio garaiz izatea kontratazio plegu berriak eta berehalako alternatibak eskaintzeko beharra zegoela zerbitzua etetea saihesteko.

200 pertsona baino gehiagok osatutako "Hiltegia ez itxi" plataformak hainbat aukera eskaini ditu EAJK berak sortu duen arazoari irtenbidea bilatzeko. Izan ere, arazo horrek are gehiago okertzen du nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak Laudion eta Aiaraldean bizi duen egoera. Bi taldeetako bozeramaileen arabera, *“sektoreak zerbitzua bere kabuz kudeatzeko duen eskaerari erantzun diezaioketen esperientzia interesgarriak daude, eta horiek esploratzea merezi du, hala nola Etxarri-Aranazko udal-instalazioak lagatzeko esperientzia hiltegia kudeatzeko, Donemiliagako udal-instalazioen erabilera lagatzea Lautadako ADR-ri, Elikagaien Transformazioaren baitan hegaztien hiltegi-zerbitzua kudeatzeko edota Urduñan ildo berean lantzen ari diren ekimena ere”*.

Bozeramaileen esanetan, *“oso argi utzi digu Udal Gobernuak hasieratik ez dutela zerbitzuarekin jarraitzeko asmorik izan, eta abeltzainen, harakinen eta baita haragi eta produktu lokalak kontsumitzen ditugunen denborarekin eta pazientziarekin jolastu dutela”*.

Oposizioak batera lan egiten jarraituko du, eragindako pertsonen ahotsa emateko, haien eskaerak kontuan hartzeko, eskura dauden alternatibak benetan baloratzeko eta udalerrak lehen sektorearen beharrei erantzuteko, inor atzean ez uzteko aukerak sortuz.